

Jakinarazten da Alkateak, 2023ko irailaren 5ean honako Dekretu hau eman duela:

“2023ko irailaren 9an ospatuko den Begarako San Martin feriaren barruan odolosteen txosna ustiatzeko lizitazioa arautuko zuten oinarriak onartuta eta eskaerak aurkezteko epea amaituta, 2023ko abuztuaren 30ean zozketa egin zen adjudikazioa nori egingo zitzaion erabakitzeko.

Zozketa akta kontuan izanda, 2023ko abuztuaren 30ean emandako Dekretu baten bitartez erabaki zen Gure Artera Sareri adjudikatzea.

2023ko irailaren 5ean adjudikazioari uko eginez idatzi bat aurkeztu du Aitor Aranzabal Altuna jaunak, Gure Artera Sare elkartearen izenean.

Gauzak horrela eta lizitazioa arautu zuten oinarriei jarraituz, itxaron zerrendan lehengo dagoenari adjudikatu behar zaiola kontuan izanda,

ERABAKI DUT:

LEHENENGOA: Odolosteen txosnaren ustiapena adjudikatzea Jardun euskara elkarteari, oinarrietan jasotako baldintzetan.”

Ebazpenaren aurkako bideak

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea dago, jakinarazpen hau web orrian argitaratzen denetik.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatzian adierazitako Administrazioarekiko Auzi errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua jar daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpena web orrian argitaratzen denetik.

Dena den, egoki deritozun beste edozein errekurtsu ere jar daiteke.

LEGE-OINARRIA: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.

Begara, 2023ko irailaren 5a

IDAZKARIA

